




GAIZKA TOQUERO

"Lehen mailako talde bat da Alaves"

Argantzón ikastola, "babes faltan"

Trebiñu euskalduntzen hamabi urte bete ditu

World Press Photo Gasteizen

Fotokazetaritza onena, Montehermoson ikusgai

ZATOZ EUSKALTELEN ZUNTZERA

GUZTIA



2016 ARTE



Pakete osoa 0 €-an 2016 arte, eta, gero,
hileko **50,9** €-an sollik (BEZa baxe)

Kontratatu urriaren
31 baino lehen,
webgunean,
saltokietan edo
1717an.

euskaltel

Sustapen hau 2015/10/31 baino lehen Zuntzean egiten diren alfa berriei aplikatuko zaie, 12 hilabeteko iraupen-konpromisoa.
Informazio gehiago, www.euskaltel.com-en.



Alea

34. zk.

Azaleko argazkia:
S. Fdz. de Aranguiz



6



10



14



20

HARPIDETU ZAITEZ

ALEA astero etxean jaso nahi baduzu,
harpidetu zaitez. 50 euroren truke,
44 ale jasoko dituzu urtean.

www.alea.eus

- 4 Hondakin erradiaktiboentzako biltegia, Garoñan.
6 G.Toquero: "Bigarren mailako afiziorik onena dugu".
10 L.Urzelai: "Buruko gaitzak ezagutarazi behar ditugu".
12 Iritzia. Aitor de la Villa, Txema Rmz. de la Piscina, Itsasegia.

ARABAKO KUADRILLAK

- 14 Gasteiz: zaborrak eta kirol txartela garestituko dira.
16 Aiaraldea: alargunen erosteko ahalmena, "larri".
17 Gorbeialdea: Urria Kulturala martxan da Legutien.
18 Lautada: bertako produktuekin, jardunaldi gastronomikoak.
19 Añana: zurezko presa bakarra desagertzeko arriskuan da.
20 Mendialdea: Nordic Walking ikastaroak abian dira.
21 Trebiñu: Argantzon ikastola, babes eske.
22 Arabako Errioxa: Kuadrillako ordezkariak aukeratu dute.

HAMAIIKA SALTSA

- 23 'Solasealean' hizketaldi publikoa Kike Amonarrizekin.
24 Fotokazetaritzako lanik onenak, Montehermoson.
26 Sahararen egoera, aztergai.
27 Zozketak.
28 Postontzia.
29 Denbora-pasak.
30 Agenda.



Argitaratzailea
Arabako Alea Komunikazio
Taldea S.L.

Zuzendaria
Aritz Martínez de Luna Urzelai

Erredakzioa
Anakoz Amenabar
Itsaso Estarrona Elizondo
Mirian Biteri

Komertziala
Erlantz Anda

Denbora pasak
Bagabiga

Inprenta
Bidasoa inprimatzeko zentroa

Banaketa
Bidera zerbitzuak

EGOITZA NAGUSIA
Arabako Alea Komunikazio
Taldea S.L.
Escola kalea, 10. 13. bulegoa,
01001. Vitoria-Gasteiz, Araba
Tel.: 945 71 60 09
info@alea.eus

Erredakzioa
erredakzioa@alea.eus

Harpidetza
harpidetza@alea.eus

Publizitatea
publizitatea@alea.eus
695 63 28 62

Lege Gordailua: VI-32-2015
ISSN: 2386-8961

Tirada: 2.100 ale

Bultzatzaileak:



Laguntzaileak:



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua

Asteko kolaboratzaileak: Aitor de la Villa, Txema Ramirez de la
Piscina, Iker Etxaniz eta Estixu Ugarte.

ALEA ez du bere gain hartzen IRITZIA sailean, edo bestelako
orrialdeetako kolaboratzaileak, adierazitako iritzien erantzukizunik.

Garoñak, bidea 'motz'

Hondakin erradioaktiboen behin behineko biltegia egiteko baimena eman du Espainiako Gobernuak; Garoña berriz irekitzeko beharrezko pausoa ere baden arren, ixteko erabakitik gertuago daudela uste dute talde ekologistek. **A. AMENABAR** GASTEIZ

Garoñako zentral nuklearraren orubeetan hondakin erradiaktiboak jasotzeko behin behineko biltegia (ATI) egiteko aukerari baiezkua eman berri dio Espainiako Gobernuak, ingurugiro eraginari buruzko txostena onartu eta gero. Zentrala berriz martxan jartzeko beharrezkoa da biltegia egitea, baina baita hau ixteko ezinbesteko pausoa ere. Paco Castejon fisikari nuklearraren esanetan –Ecologistas en Acción taldeko kidea ere bada–, Garoña eraisteko prozesuan "beste pauso bat" da honakoa.

Era honetan, hondakin erradiaktiboekin betetako 32 edukiontzi izango lituzke Garoñak, gehienez ere hamar urtez. Momentu honetan Garoñak hondakin guztia du hainbat piszinatean, 2012ko abenduan zentralaren jarduera gelditu eta erregaia bertan sartu eta gero. "Bi urte hauen ostean nahiko hoztuta behar luke bertatik atera eta altzairu eta hormigoi edukiontzi horietan sartzeko", azaldu du Castejonek. Horretarako, baina, hainbat neurri hartu behar dira inguruan erradioaktibitate maila ahalik eta txikiena izan dadin lortzeko. Besteak beste, lurrikara edota bestelako eraso fisikoen aurrean ondo babestutako edukiontziak eraiki behar dira, eta hori ere kontuan izango

"Ixteko prozesuan beste pauso bat da hondakin erradioaktiboen behin behineko biltegia egitea"

PACO CASTEJON FISIKARI NUKLEARRA

dute Garoñan, Castejonek aipatu moduan: "Inori ez zaio gustatzen hilerri nuklear bat, noski, baina zentrala ixteko bidean pauso onargarria dela uste dut".

Aurrekariak

Garoña gutxinaka ixten ari diren erakusle nagusi dira, haren ustez, orain arte hartutako hainbat erabaki. "Niretzat klabea izan zen Nucleonorrek geldiarazteko agindua eman zuenean eta bertatik erregaia atera eta luzatzeko aukerari ezezkoa eman zionean". Castejonen arabera, horrek erakusten du Endesak eta Iberdrolak –Nuclenor– ez zutela benetako interesik Garoñaren bizitza luzatzeko: "Gobernua presionatzeko bidea izan zen, gainontzeko zentralen bizitza urteak luzatzeko".

Bestalde, azken hilabeteetan bertan behera utzi ditu Espainiako zentral nuklearraren kudeatzaileak, CSN Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluak, Garoñan egiten zituen

ikuskapenak, eta hori ere "adierazgarria" da Ecologistas en Acción taldeko kidearen ustez. "General Electric-ek ikuskapenak egiteko baliabide nahikorik ez zuela izan da aitzakia; hori ez du inork sinisten". Berriz ere martxan jartzeko beharrezko baldintzetako bat da, hain zuzen, ikuskapenak egitea. Haren ustez, hurrengo hauteskundeetan Espainiako gobernuan zein izango den zain daude: "Baliteke hurrengo gobernua Garoña ixtearen alde egotea eta, beraz, egindako lana alferrikakoa izatea; horregatik geldiarazi dituzte, gure ustez".

Gertakari hauek guztiek erakusten dute, Castejonen arabera, "argia" dela Arabatik kilometro gutxira dagoen zentrala ixteko bidean ari direla. "Inork ez du pentsatzen dagoeneko zentrala berriz ireki daitekeenik, nuklearren aldeko fundamentalistak salbu; are gehiago, ixteko bidean hondakin erradioaktiboen biltegia egitea beste pauso bat da".

Zentral nuklearrak eta Garoña bera bizirik mantentzearen aldeko mezuak, ordea, egon badaude. Foro Nuklearrak berriki txosten bat jarri du mahai gainean, Garoñaren behin betiko itxierak izango lituzkeen galea ekonomiko "handien" inguruan. Castejonen ustez, baina, prest egon behar dute zentral nuklearrek hala-koetara egokitzeke: "Zentral nuklea-



**Garoñaren kontrako foroak
otsailean egindako
ekitaldia, Gasteizen.**

JUANAN RUIZ

rrak ez dira betirako, lehenago edo beranduago eraitsi behar dira eta prest egon behar dute momentu horretarako". Kide ekologistaren esanetan, zonaldean inbertsioa egin behar da, lanpostu eta jarduera alternatiboak bilatu behar dira zentrala ixten hasten den momentuan. "Orain kexatzea, forokoak kexatzen diren moduan, edo langileen ordezkariak

egiten duten moduan... ez du zentzurik. Inteligenteagoa zen momentu hau prestatzea".

Zentrala ixteko prozesuan ere hainbat lanpostu sortuko direla nabarmendu du Castejonek, eta "hipokritak" direla kexa hauek. "Beraz, gezurren aurrean, argi dago zentrala ixtearen inpaktua ez dela hain bestekoa izango; garaiz gaude eko-

nomia alternatiboa antolatu eta ingurumenarekiko iraunkorragoak eta askoz errespetagarriagoak diren jarduerak abian jartzeko". Lana bera "dibertsibikatze" baliagarria izango dela uste du: "Orain zeinek ateratzen du etekin ekonomiko nagusia? Nuclenorrekin eta haren enpresek, ez inguruko herritarrek; goazen benetak aterabideak bilatzera".



Hala Bedi tabernako nobedadeak

**Astelehenetik ostiralera
Eguneko platerra + edaria
6€**

...eta ostegun gaueko fajitas eta txakolak


Kutxi 101

Telf: 945 26 04 11

GAIZKA TOQUERO PINEDO

FUTBOLARIA San Mamesen zazpi denboraldi eman eta gero, Mendizorrotzara iritsi berri da Gaizka Toquero (Gasteiz, 1984); Alaves lehen mailara igotzen denean zelaian egon nahi du. **ITSASO ESTARRONA** GASTEIZ

"Jokalari sentitzen naiz berriro ere"



Toquero, Ibaiako
entrenamendu
zelaian.

SAIOA FDZ. DE ARANGIZ

Ligako kromoen bilduma egitetik bere aurpegia kromoetan ikustera saltoa eman zuen Gaizka Toquero gasteiztarrak Athleticen kamiseta jantzi zuenean. Katedraletik Gloriosora heldu berria, talde txuri-urdinarekin berriro ere lehen mailan jokatzeko erronka du zerumugan.

Athleticen zazpi denboraldi jokatu eta gero, zer duzu oraindik lehoitik?

Dena, uste dut. Nire bizitzako urterik onenak izan dira Athleticen futbolari dagokionez. Ahaztezinak. Jokalari bezala hazi egin naiz, pertsona itzelak ezagutu ditut eta lagun onak egin ere bai. Bertan egon izan naizen urteei esker naiz orain naizen jokalaria.

Katedralean idolo bihurtu zinen. Mendizorrotzan ere horren babestuta sentitzen al zara? Zer jasotzen duzu afiziotik? Alavesen bigarren mailako afiziorik onena dugu. Lehen mailakoan artean ere, gutxi animatzen dute gureak bezainbeste. Futbol giro polita dago, bai zelaian baita hirian ere. Naba-

"Athleticek fitxatu ninduenean, lehenengo entrenamendura ez nintzen bakarrik joatera ausartu"

"Taldeari lagundu nahi diot, izan golak sartzen edo paseak ematen; kluba da inportantea, ez jokalariaik"

ritzen den zerbait da: lehen mailako taldea da, bigarrenen egon arren. **"Ari, ari, ari, Toquero Lehendakari". "Ni Messi, ni Agüero, Gaizka Toquero". Zer izan dira zuretzat kantu horiek? Oraindik kantatzen al dizkizute hemen?**

Jendeak animatzeko eta laguntzeko kantatzen zidan, eta hori jokalariaik asko baloratzen dugu. Gasteizen ez didate kantatu, baina oso maitatua sentitzen naiz ere; lehenengo bi hilabete t'erditan, primeran portatu izan da jendea nirekin. Zaleak oso garrantzitsuak dira guretzat.



"Ez dut besteen porrota ospatzen"

Partiduetan, zenbat egiten duzu korrika?:

Hamaika-hamabi kilometro.

Umetako zure lehenengo neurketa.

Presentacion de Maria ikastetxearen kontra. Zazpi eta hiru irabazi genuen Olabideko.

Gola sartu zenuen?

Hiru.

Partidu ahaztezin bat.

Errege Kopakoa, Athleticen nengoela, Sevillaren kontra lehenengo finalerdian.

Gol bat.

Partidu horretan sartu nuena, hirugarrena. Horri esker iritsi ginen Errege Koparen finalera, Barçaren kontra.

Horri esker kantatzen zizuten "Ari, ari, ari..."

Bai.

Aurkarien porroten bat ospatu al duzu?

Ez. Badakit zer den galtzea, eta hori ospatzea ez zait ondo iruditzen.

Zelai bat edo estadio bat.

San Mames zaharra.

Eta berria?

Estadio hobia da, baina zaharretik daukat oroitzapen hobeak.

Jokalaria bat.

Zinedine Zidane.

Zergatik?

Nire estiloaren guztiz kontrakoa delako, agian.

Azken denboraldian txuri-gorriekin aulkia berotu zenuen. Gutxi jokatzetik asko jokatzera pasa zara. Nola bizi duzu aldaketa?

Jokatzeko entrenatzen dugu kirolariok. Hori da gure saria. Horregatik, azken bi urteetan gaizki samar pasa dut Athleticen, oso giro ona eta lagun onak eduki arren gutxi jokatu nuelako. Gasteizen titular bezala jokatu dut neurketa guztietan liga hasi zenetik, eta hori zen bilatzen nuena: berriz ere jokalaria sentitzea. Poz-pozik nago Alavesen.

Lehenengo mailatik bigarren mailara pasatzerakoan, zer galdu eta irabazten da?

Galdu, nik ez dut ezer galdu. Azken finean, jokalaria gehienok egin behar izaten dugun aldaketa bat da. Aurretik ere jokatu izan dut bigarren mailan, bigarren B mailan eta hirugarrenean. Sasoi bakoitzak bere berezitasunak ditu. Irabazi... agian erosotasuna, ez dudalako egunero Bilboraino joan behar. Edonola ere, ez nuke irabazi edo galdu kontu moduan planteatuko. Bizitzako momentu ezberdinak dira.

Lehenengo mailan hasi zinenean, bigarrenen baino gol gehiago sartzen hasi zinen. Zerk pizten du barruan duzun goleatzailea?

Konfidantzak asko egiten du. Norbaitek zugar sinesten duenean eta gustura sentitzen zarenean, gauzak hobeto ateratzen zaizkizu. Niri hori gertatu zitzaidan: Joaquin Caparrosen sartu nituen gol gehien lehenengo mailan; konfidantza zuen nigan eta asko ikasi nuen. Hemen ere, Bordas misterrak konfidantza eman dit oraingoz. Hiru gol sartu ditut eta espero dut askoz gehiago sartzea. Nolanahi ere, ez dizkiot nire buruari gol helburuak jartzen: taldeari laguntzea da inportantea, izan golak sartzen, paseak ematen edo lan egiten. Kluba da garrantzitsua, ez jokalariaik.

Nazioarteko futbol izarrekin harremana izan duzu. Zer ondorio atera duzu aurrez-aurreko kontaktu horretatik?

Gogoan dut Athleticera iritsi nintzen lehen eguna. Lotsa-lotsa eginda nengoan, eta ez nuen bakarrik joan nahi izan. Jokalari horiek kromoetan ikustetik haiekin jokatzera pasatzea... niretzat pauso oso handia

zen. Estraterrestreak iruditzen zitzaizkidan, urrutikoak; gero, aldagelan, zu bezalako pertsona normal eta gertukoekin egiten duzu topo.

Kromoa zu izan zinen gero...

Bai, lehen mailan egon naizen urteetan nire kromoa izan dut, eta nire amak guztien bilduma egiten zuen, hasieran batez ere. Ilusioa egiten dizute halakoek, horren aurretik eskuraezina iruditzen zitzaizulako mundu hori.

Nork lagundu zintuen Athleticera lehenengo egun hartan?

Koikilik. Sestao klubetik ezagutzen nuen, eta esan nion: gera gaitezen nonbaiten entrenamendua baino lehen; edonora joango naiz, baina sar gaitezen elkarrekin aldagelara. Koi izan zen lehenengo egunetan integratzera lagundu ninduen, baka-rrik ez egoteko.

Klub txikiagoetan ere egon izan zara: Lemona, Sestao River, Eibar... Zer ikasi zenuen horietan?

Futbolari bezala duzun ibilbidean, momentu bakoitzean zerbait berria ikasten duzu, eta entrenatzaile bakoitzetik zerbaitekin geratzen zara. Ez da bakarrik lehen mailan ikasten: Lemona edo Sestaon ikasi nuena ikasi gabe, ez nintekeen lehen mailara iritsiko. Inportantea da urrats txikiak egiten joatea, elitera iristeko.

Athleticen asko hitz egiten dute harrobiaz eta oinarri futbolaz. Nola zaindu behar-ko genuke hori Araban?

Zaila da: dirua inbertitzen duzu eta agian ez zaizu jokalaria on bat ere ateratzen. Pazientzia handia izan behar da, eta Athleticen pazientzia izatea besterik ezin du egin, horretaz bizi delako eta, horretaz bizi



Toquero, elkarrizketan zehar. | S. FDZ. DE ARANGUIZ

zarenean, gehiago ahalegintzen zare-lako, nahiz eta gehiago gastatu behar izan. Agian urte batean bost jokalaria on lortzen dituzu, eta hurrengoetan bat ere ez. Leku guztietan daude jokalaria onak, eta askotan aukera gehiago ematen zaizkie kanpokoei barrukoei baino.

Athleticen jokatzen zenuenean, Gloriosoaren abenturak jarraitzen zenituen?

Bai, gasteiztarra naiz, beti bizi izan naiz Gasteizen eta, Athleticen jokatzeraz deitzen ez ninduenean, Alavesen partiduak ikustera joaten nintzen ahal banuen. Bazkidea naiz eta gogoko dut nire lagunekin neurketak ikustea. Jakina, orain zelaian sufritzen eta disfrutatzen dut Alaves, eta hori, gasteiztar bezala, gauza berritan ederra da.

"Edonon daude jokalaria onak; askotan aukera gehiago ematen zaizkie kanpokoei barrukoei baino"

Zelaitik kanpo, zein izan da Alavesek oparitu dizun momenturik zirraragarriena?

UEFAko final hura, Dortmundekoa (Alemania, 2001). Hara joan ezin izan ginen lagunok Mendizorroztako pantaila erraldoitik ikusi genuen, gure amekin. Ume batzuk ginen. Galdu zuen arren, partidu itzela egin zuen Alavesek.

Eta zelaitik, nola ikusten duzu taldea?

Ondo, egia esan. Aldaketa asko egon dira, baina lan egiteko gogo handia duen jendea etorri da.

Lehen mailan ikusten al duzu berriro talde babazorroa? Gorenean?

Hori espero dut, eta horretarako lanean ari gara hemen gauden guztiok. Lehen mailara igotzea lortu duten jokalariaik egon izan dira gu baino lehen. Zergatik ba ez dugu guk ere lortuko? Oso zaila da, eta agian urte bat baino gehiago behar izango dugu, baina espero dut etorkizun hurbilean Alaves lehen mailan egotea.

Alavesek bere erronkak ditu. Zeintzuk dira zureak?

Ez diot nire buruari gol helbururik edo halakorik markatzen. Gustatuko litzaidake Alaves, duen historiarekin, dauzkan instalazioekin eta, batez ere, dituen zaleekin, lehen mailara igotzea, eta hori lortzen dugunean ni ere zelaian egotea. Ni ezin banaiz egon eta beste batzuk lortzen badute... oxala!

BIDEOA: HIRINET.NET



Aldabe plazatxo, 4 Gasteiz
www.salabaratza.com

PROGRAMAZIOA

URTEKO FORMAZIOA

Antzerkia Urriak 16 Ostirala 19:00 Café de la Artes "Mariposas de París" <i>Familia osoanritzat</i> sarrera: 6/8€ haurrek -%50	Dantza Irailak 18 Igandea 19:00 DANTZAN BILAKA Sorkuntza koreografikoaren prozesuak sarrera: 6/8€	Dantza MASTERCLASS Urriak 24 Launbata 10:00-14:00 Maria Muñoz (Malpelo) 30€ Izena eman: reservas@salabaratza.com	Dantza garaikidea Sormen ikerketarako Laborategia Gorputz adierazmena Antzerkia eta talde sorkuntzarako tailerra Tango/IIIII/Yoga/IIIII/Swing Ondo sentitzea klaseak aguntia zaleak...

SOLAS ALEAN

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital

**Kike
Amonarriz**-ekin

DATA: urriaren 16an, ostirala

ORDUA: 19'00etan

TOKIA: Oihaneder Euskararen etxea

*elkarrizketa
irekia, bota
zure galdera*

Gidariak:



hir!net

Antolatzailea:

www.oihanedereuskararenetxea.eus



OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA
EUSKALIZKO KRIAL ANTZOKIA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

LAIDA URZELAI

ASAFES ELKARTEKO KIDEA

Aurreiritzien kontra ekinaldia egingo du egunotan Asafesek, buruko gaixotasuna duten pertsonen eta senideen Arabako elkarteak; bide horretan, lan alorrean eragiteko beharra aipatu du Laida Urzelai gizarte hezitzaileak. **A. AMENABAR** GASTEIZ

"Buruko gaixotasunak ezagutu eta beldurra uxatu behar dugu"

Buruko gaixotasunen nazioarteko eguna izan zen joan den larunbatean, hilaren 10ean, eta hari lotuta hainbat ekintza antolatu ditu Asafes Arabako elkarteak datozen egunetarako. Egunerokoan, gaixotasunarekin batera, "mito" eta "beldurrei" aurre egin behar dietela gogoratu du Laida Urzelai (Gasteiz, 1983) elkarteak gizarte hezitzaileak, eta oraindik horiek ezagutzera emateko beharra nabarmendu du.

'Jar zaitez nire tokian' izan da aurtengo buruko eritasunen eguneko leloa. Bestearen lekuan jartzea falta da?

Bai, herritar gehienek ez dakite zer den buruko gaixotasun bat, ezta edozeinek izan dezakeela. Halako egun bereziekin bilatzen dugu jendeak ezagutzea eta beldur horiekin apurtzea. "Bizitza osoa eman du oso normal eta...", esaten da maiz, eta orain gaixo dago, bai. Baina diabetesa duenak bezala; horrek intsulina hartu beharko du egunero edo pilula bat bazkaldu aurretik; buruko gaixotasuna duenak ere, antzera, botikak hartu beharko ditu, kontrolak izan beharko ditu bizi-modu egoki bat izateko eta horretarako inguru egokiak ere lagundu behar du. Gaixotasun hauek eza-gutarazi behar ditugu.

Ezjakintasun handia dago gaiaren inguruan, oraindik?

Bai, eta horrek estigma dakar. Heda-bideei begiratu diezaiokegu, esate baterako; kutsu morboso duen edozein albisteren aurrean beti aipatzen dute buruko gaixotasuna izan duela, hilketak tartean daudenean lehenengo gauza da... eta Germanwings dugu gogoan, esaterako. Horrekin geratzen dira herritarrak: depresioa zuen. Baina nola zaintzen ari zen hori? tratamendurik ba ote zuen? "Depresio latza" hitz horien atzean pertsona bat dago, familia bat, tratamendu bat. Estigmak min handia egiten du; "erasotzaileak omen dira gaixo hauek, kontuz ibili behar da eurekin"... bada, justu alderantzizkoa da, indarkeria euren gorputzetan bizi dute.

Buruko gaixotasunen artean, gainera, askotariko kasuak daude. Zeintzuk artatzen dituzue bertan?

Gehien diagnostikatzen dena esquizofrenia eta desoreka bipolarra dira, baina geroz eta gehiago ikusten ari gara mugako nortasun-nahastea moduan izendatu dena; gazteen artean eta emakumeen artean horietako gehienak. Denetarik ikusten dugu Asafesen; gaixotasunak nabarmen astindu eta alde kognitibotik zein sozialetik nahiko kaltetuta

daudenak, eta baita bizitza normaltasun osoz euren familiarekin egiten dutenak. Denetarik dago, eta gero eta gazteagoak; hogeituro urteko lagun bat etorriko da gaur.

Zein izan daiteke arrazoa buruko eritasuna horren gazte izateko?

Argi dago osagai genetiko bat bada-goela hor, baina osagai horri lagundu egiten badiot drogak kontsumituz edota gatazkatsua den inguru batekin, horrek areagotu egin dezake gaixotasuna, piztu edo okerrago bihurtu. Drogak argi dago mina eragiten ari direla, faktore garrantzitsua dira; hain zuzen bi alderdi horiek dituzten pazienteekin ari dira lanean Abegia erresidentzian, buruko gaixotasuna izan eta drogak kontsumitu dituztenekin.

Buruko gaixotasunen nazioarteko egunari lotuta, zer jarduera antolatu dituzue?

Larunbatean, hilaren 17an, 18:30ean, hainbat ikuskizun izango dira Gasteizko Hegoalde gizarte etxean, Aco-tados antzerki taldea, Traspasos dantza taldea eta Cocorotas abesbatzarekin. Eta hurrengo ostiralean, hilaren 23an, 18:00etan, hitzaldia eskainiko du Silvia Congost psikologo eta idazleak; menpekotasunen eta buruko gaixotasunen inguruko loturaz hitz egingo du Europa jau-regian.



**Laida Urzelai, Asafes
elkarteak Salburua
auzoan duen egoitzan.**

A. AMENABAR

**Egun bereziko ekinaldiekin batera, zer
erronka ditu elkarteak?**

Estigmak apurtzeko lana garrantzitsua da eta, ildo horretan, esaterako lan alorrean eragin behar dugu; lanpostu batek laguntzen baitio normalkuntzari. Eta etxebizitzekin ere kezka dugu; Araban badaude

tutelatutako pisuak, baina ikusten dugu ez direla eurei egokitzen; etxebizitzak ondo daude baina intimoki eta pertsonalki bizitzeko beharra dute pazienteek eta batez ere beharrei egokituta egon behar dute; egon daitezke bi pertsona eskizofrenia dutenak eta guztiz ezberdin bizi;

beraz, ezin diegu gauza bera eskaini. Beste alde batetik, medikuntzari dagokionez, eskaintza handiagoa behar dute; hemen izan ditugu pazienteak bi urtez psikiatrara joan gabe, itxaron-zerrenda amaigabeak dituelako, hori ez da ulergarria. Eskaintza handitu behar dute.

apaindura **K** **IDE**
altzariak

Cercas Bajas, 27
01008 VITORIA-GASTEIZ

Tel: 945 14 41 95

AITOR DE LA VILLA
IKASLEA



Navarrísimo

Konplexuek inbidiaren negu hotzean gezurra dute beroki. Hala ere, neopreno eta arropa termikoen garaian, egur-suaren herrian, batzuen masailezurak oraindik dabilta dardarka. Negua dator, asko urte osoan zehar neguan bizi badira ere. Neguan bizi direnek, hotza dela eta, ordenagailuko tekla eskularruekin

sakatzen eta hitzak bufanda lodi baten beste aldetik esaten ematen dute eguna. Ez da eroso izan behar.

"Alavesismo" mota berri honek 'navarrismoa' ekarri zidan gogora"

Aurreko egunean kazetari hozbera baten hitzak irakurri nituen: "Alaveseko zaleek

Osasunaren zaleak dituzte lagun, bi taldeen zaleek Athletici gorrotoa diotelako". Ondoren, doinu probokatzaile batekin, ekin zion, Athletic aitzaki, bizkaitarren kontra egiteari. Ez da lehenengo aldia kazetariak Alaveseko bufandarekin, antifaza bailitzan, begiak estaltzen dituen; Gasteizko taberna bat Athleticeko banderak jartzeagatik satanizatu zuenean bezala. "Alavesismo" berri honek, Nafarroako hauteskundeetan erabili zen "Navarrismoa" ekarri zidan gogora; edo, zergatik ez, hemengo hiper-mega-euskaldunen anti-espainolismoa. Beroki hauek guztiak saltoki berean daude salgai, garesti –asko baita galtzen dena beroki hauek jantzita–.

Kazetari horrek ziurrenik ez nau Mendizorroztan Alaves animatzen ikusiko –futbolzalea ez naizelako–. Errezago izango du ni Bilboko zazpi kaleetan topatzea, edo Cadizeko hondartza batean, edo Logroñon, edo Parisen, edo Bartzelonan, edo Madril-en... hainbeste maite dudana Bizkaian, edo Frantzia edo Espainian, arabarra eta abertzalea izanda, berokirik gabe.

TXEMA RAMIREZ DE LA PISCINA
KAZETARITZA IRAKASLEA



Galbaheak

Adinaren kontua izango da. Horixe pentsatu nuen hasieran. Behin 50 urteko muga pasa ondoren, ezer gutxi harritzen zaitu. Nekez topatzen duzu fenomeno guztiz berritzaile edo mugimendu erabat txundigarria. Zail egiten zaizu *erabateko adostasuna* topatzea inon. Beti dago ñabarduraren

bat, *bainaren* bat, tolesduraren bat... honekin edo harekin guztiz ados egoteko motiboren bat. Eszeptizismoa omen. Garai batean gurtzen genituen ikurak, paradisuek,

"Gizakiok jakin baino gehiago sinestea nahiago dugu; arriskutsua da"

alderdiak, pertsonaiak, musika-taldeak, e.a. urteekin lausotu, moldatu, aldatu edo desagertu egin dira. Ezer ez da berdin, kamarada.

Gerora konturatu naiz, ordea, ez dela soilik 50eko muga igaro dugunon artean sumatzen den posea. Izan ere, gaur egungo gazte askok ere jarrera mesfidati eta sinesgabea erakusten du gauza askorekiko, eta kritikoak direla baita gizartean oso kritikoak diren mugimendu, alderdi edo buruzagiekiko ere. Zorionez. Aldamean dudana lagunak ez dit sinesten: *Ez pentsa, ez pentsa, Txema, jendea edozer sinesteko kapaz da; aski da aurpegi eder bat eta hitz-jario loriatsu bat edozein txolinari demaseko tontakeriak sinesteko.*

Denetik egongo da, noski. Sinesmen kontua izango da. Gizakiok jakin baino gehiago sinestea nahiago dugu. Arriskutsua da. Dideroten esana: *Arrisku bera dago gehiegi edo gutxiegi sinestean.* Gakoa galbahetan dago; norberak informazioa filtratzeko erabiltzen dituen galbahetan. Galbaheak. Ezinbestekoak.

LAGUNDU ITSASEGIAREN ZINTA



GUTUNAK

SAREAN

TTIP: saria edo ziria

POBREZIAREN AURKAKO ERAGILEAK

ARABA

Aurten ere, urriaren 17an, Pobreziaren aurkako nazioarteko egunean, hainbat kolektibo sozial elkartuko gara egun hori salaketa eta aldarrikapenerako jardunaldi bihurtzeko (...). Gaur egungo eztabaida handiek inpaktu globala eta isla lokala dute, esaterako Europar Batasunaren (EB) eta Amerikako Estatu Batuen (AEB) arteko Merkataritza eta Inbertsioen Itun Transatlantikoak (TTIP). Proposamen horrek araudi marko berri bat mahai gaineratuko du bi eskualdeen arteko merkataritza eta inbertsio harremanak arautzeko, honako helburuarekin: planetako merkaturik handiena sortzea. Baina TTIP ez da bakarrik merkataritza arloko akordio bat. Itun berri bat da, nazioz gaindiko enpresa handien interesei baino lagunduko ez diena, produktore txiki, kontsumitzaile, merkataria eta oro har hiritarren kaltetan. Baditu bere baitan hainbat ekimen ekologia, gizarte, lan eta ekonomia arloetan, inpaktu oso negatiboa izango dutenak eta defizit demokratiko handia ekarriko dutenak (...). Horregatik, hauxe eskatzen dugu:

1.- Joko arau asko goitik behera aldatuko dituen eredu ekonomiko eta sozial berri bat, hazkunde, kontsumo eta lehiakortasunaren

mitoetatik ihes egiten lagunduko diguna, gizarte eta ingurumen arloetan sostengarria, zoriona eta ongizatea lortzeko.

2.- Estatuek ahalik eta baliabide gehien bideratu ditzatela, horren bidez bermatzeko osoki beteko direla giza eskubideak eta eskubide sozial eta kulturalak, baita murrizketa sasoiaren ere.

3.- Sektore pribatuak pertsona guztien Giza Eskubideekiko errespetuaren arabera lan egin dezala, legeak eta araudi nazionalak betetzeaz harago.

4.- Merkaturaren erregulazio ezaren neurrigabeko aurrerapena geldiaraztea, horrek munduan izan ditzakeen ondorioak saihesteko: desberdintasun eta pobrezia gehiago.

5.- Estatuek konpromisoak har ditzatela politika fiskalak eta giza eskubideen betepena elkarrekin lotzeko, hau da, diru-sarrera gehiago bideratzeko politika publikoetara, kudeaketa garden eta parte-hartzaile batekin. Horretarako, larunbatean (urriak 17), bizimartxa irekia egingo dugu Gasteizen, 13:00etan Legebiltzarretik abiatuta Andra Mari Zurira. (Manifestua osorik: www.ongdeuskadi.org).

Parte hartzeko:

Gehienez, 1.500 karaktere. Egilea, herria eta telefona zehaztu. ALEAK eskubidea du gutunak laburtzeko eta HIRINET.NET-ekin elkarbanatzeko. erredakzioa@alea.eus

#Hispanitatea

Astelehenean 523 urte bete ziren Cristobal Colonen espedizioa Amerikara iritsi zela; urteurrenean hispanitatea ospatu dute batzuek, eta herri indigenen sarraskia eta erresistentzia aldarrikatu besteek. **I.E** @itsasoestarrona GASTEIZ



Jon Ordoñez @jonordoez

La Españolan, 1492ko urriaren 12an 250.000 arahuakiar izatetik 25 urtean 14.000 izatera. Genozidioa, ospakizun.



Asier Lauzurika @alauzurika

500 urtetako sarraski bat ospatzetik, 500 urtetako erresistentzia duina ospatzera. Jatorrizko herriak zutik!



Alba Fatuarte @albafatu

Atzo karabelak, gaur multinazionalak eta kanpo zorra. Inperialismoak darrai ta baita erresistentziak ere! #GoraHerriak



Eneko Fernandez @enekogara

Zalantza bat daukat: genozidioa salatu eta kritikatu ondoren txokolatea meriendatu dezaket?



Aske sentitu! @marixeruizde

Odola izan zen, ez txokolatea. Traizioa izan zen, ez laguntza. Sarraskia...



Iñaki Larrañaga @InakiLarra

Espainiartasun Egunaren iragarkia emititzeko une okerragorik ezin zuten aurkitu, estatu terrorismoari buruzko dokumentalaren erdian.



Santi Leoné @ororostorm

Dagoeneko ahuntza urduri dago #LovelsInTheAir



Karmen Zabaleta @kazabaleta

Testu liburuetan oraindik 'Amerikaren aurkikuntza' irakur daiteke eta ikastetxeetan hala irakasten da. Menderatzailearen hizkuntza.



Gasteiztarrek %6 eta %10 bitartean gehiago ordaindu beharko dute zaborren tasagatik, euren etxebizitzak dituen metroen arabera. | ALEA

Zaborren tasa eta piszinak garestituko dira Gasteizen

Haurreskoletan, ur zerbitzuan eta aparkaleku urdinetan %1eko igoera proposatu du Gorka Urtaranen gobernuak

ITSASO ESTARRONA

GASTEIZ

Udalari eta gasteiztarrei datorren urtera begirako kontuak egiteko ordua iritsi zaie. Gasteizko udal gobernuak 2016rako zerga, tasa eta prezio publikoen proposamena aurkeztu du aste honetan. Aurreikuspen horren arabera, zaborren tasa da gehien garestituko dena: %6 eta %10 bitartean, etxebizitzak dituen metroen arabera.

Gasteiztar gehienek %6 gehiago ordainduko dute haien hondakinengatik datorren urtean, hori baita 120 metro baino gutxiagoko etxebizitzetarako aurreikusi duten igoera. Aldiz, 120-200 metro bitarteko etxebizitzetako jabeei %8 garestituko zaie ordainagiria, eta jabetza handiagoa dutenei, %10.

Igoera horrekin, zerbitzuaren kosteari aurre egiteko diru gehiago bildu

nahi du Gorka Urtaranen lantaldeak; izan ere, gaur egungo tarifekin zabor bilketak balio duenaren erdia ordaintzeko ere ez du ematen.

Gainerako zerga, tasa eta prezio publikoak, oro har, %1 igo nahi ditu Borja Belandia Ogasun sailerako zinegotziak, zenbateko berean aurreikusten duen lako Kontsumorako Prezioen Indizearen igoera (KPI). Igoera horrek hona-

ko zerbitzuei eragingo lieke: haurreskolen kuota, TAO aparkaleku urdinak, Amvisaren ur zerbitzua eta Eraikuntza, instalazio eta lanen gaineko zerga (EILZ). Piszinetako karne-tak portzentaje berean garestituko dira, baina deskontu berria onartu nahi du udal gobernuak: hain zuzen, %24ko hobaria 18 eta 24 urte bitarteko gazte guztientzat, eta ez bakarrik –gaur egun beza-

la-ikasleentzat. Zenbakitan, 65 euro ordainduko dituzte gazteek, 86 beharrean.

Beharpen gehiago proposatu ditu Udalak: Luis Aranburu udal musika eskolan %50eko deskontua izango dute familia ugariak, Folklore akademian eta Dantza Kontserbatorioan bezala. Bestalde, Goiuri (Villa Suso) eta Europa biltzar jauregiko aretoak erabiltzeko tarifak heren bat murriztu nahi ditu.

Enpresei zerga, leunduta

Bi milioi eurotik gora fakturatzen duten enpresek ordaindu beharreko Jarduera ekonomikoaren gaineko zergak (JEZ euskaraz, IAE gazteleraz), auzi fiskalaren erdian jarraitzen du. Iaz Javier Marotoren gobernuak eta EH Bilduk %41 igotzea onartu ondoren, aurtengo igoera hori leuntzeko ados jarri dira EAJren gobernuak, PP bera, PSE eta

Arabako enpresarien SEA elkarteak. Hori dela eta, 2,2tik 1,1era jaitsi nahi dute zenbatekoa; ehunekotan, aurreikusitako igoera %5 murriztuko dute.

Kirol karnetean deskontua izango dute gazte guztiek, ez soilik ikasleek

Badaude ere oraingoz bere horretan mantenduko direnak. Horien artean dago plusbaliaren gaineko zerga (besteak beste, etxebizitza saltzerakoan ordaintzen dena), eta Ondasun Higiezinaren gainekoa (gaztelerazko IBIa). Bi horien kasuan, Udala zain dago Arabako Aldundiak katasstroaren balioa gaurkotu arte, hori baita eraikinen eta zoruen balioa markatzen duena, eta horren

Zenbakitan

IGOERAK

Ura: %1.

Haurreskolak: %1.

TAO: %1.

Pisinetako karneta:

%1. Deskontu berria 18-24 urteko gazte guztientzat (-%24).

Zaborra: %6 eta %10 arteko igoera, etxeko metroen arabera.

JAITSIERAK

JEZ (IAE): Jarduera ekonomikoaren gaineko tipoa 2,2tik 1,1era jaistea proposatu dute, aurtengo %41eko igoera leuntzeko.

IZOKKETAK

Oraingoz: OHZ (IBI) eta plusbalioa, Arabako Aldundiak katastroa gaurkotu arte.

arabera kalkulatzeko baitutuzte aipatutako zergak.

Behin proposamena aurkeztuta, oposiziotik babesa behar du Gorka Urtaranen lantaldeak, 27 zinegotzietatik 14ren botoa behar duelako (gehiengo osoa), eta EAJk bost ordezkari baino ez dituelako. Aurreikusteko modukoa da PSEko haien bazkideak alde izango dituela (lau zinegotzi); hortaz, beste bost lortu beharko ditu, horretarako seguraski oposiziotik proposatutako zenbait aldaketa onartuta.

Zenbakien negoziatzioan, kontuan hartzekoa izango da Udalak bankuei eskatu berri dion sei milioi euroko mailegua, Marotoren taldeak egindako zenbakiekin hiriari ez zitzaionako gastu arrunta ordaintzeko iristen, AMVISA ur zerbitzuen udal enpresan eskua sartuta ez bazen.

KULTURA

Krearen arte, diseinu eta moda campusa, zehazteke

Arabako Kultur Mahaiak proiektua aztertzeko taldea sortu du, eta "interes publikoa" aintzat hartzeko eskatu

I. ESTARRONA

GASTEIZ

Gasteizko hainbat kulturegilek SOS Krea mugimendua piztu eta hiru astera, Betoñuko azpiegituran datorren ikasturtean diseinu, arte eta moda ikasketak eskainiko dituen campusa ezartzeko asmoa jakinarazi du Intl Campus erakunde pribatuak. Proiektu horren zehazgabetasunaren aurrean, egitasmo hori ondo aztertzeko lantaldea osatu berri du sorkuntza garaikiderako Arabako kulturaren mahaiak.

Berrehun hiritar baino gehiagok osatutako mahai

irekiaren arabera, aurkeztutako proiektuaren zirriborroa Kreako hasierako helburutik "oso urruti" dago. Izan ere, hura ez zen moda, arte eta diseinura mugatzen, baizik eta "modu integralean aintzat hartzen zituen praktika eta sorkuntza artistikoa". Hala ere, "ongi etorria" eman diote sustatzaileen asmoei, baina oraingoz proiektuak "asmo onak" besterik ez dituela azpimarratu dute.

Elkarriketa beharra

"Egitasmoaren begi-bistako indefinizioa ikusita, elkarriketa garden, zintzo eta emankorra" eskatzen

dute sustatzaileekin, kultur mahaiari eskatzen dioten "fede keinua" gehiegizkoa dela uste baitute.

Arabako kultur mahaitik gogorarazi dutenez, 18 milioi euroko inbertsioa egin zen Krea sormen zentroa sortzeko, Caja Vitalarena izan aurretik Gas-

teizko Udalarena zen eraikinean. Proiektu hura bertan behera geratuta, Karmeliten komentu ohia-ri emango zaion zeregin berriak "interes publikoa" kontuan hartzeko aldarrikatu dute, eta hori bermatzen saiatuko da sortu berri duten lantaldea.



Krearen etorkizuna zehazteko elkarriketa eskatu dute. | DAVID MANGANA



Alargunen elkarteek egiten duten elkartasun lana goraipatu du Maite Bilbao audioarrak. | AIARALDEA.EUS

MAITE BILBAO OTEGI

AVILLO ALARGUNEN ELKARTEKO LEHENDAKARIA Aiaraldeko alargunen egoera ekonomikoa "kezkarria" dela nabarmendu du Maite Bilbao. **TXABI ALVARADO - AIARALDEA AUDIO**

"Erosteke ahalmena izugarri galduko dute alargunek"

Zer nolakoa da Aiaraldeko alargunen egoera?

Aiaraldeen bada-go arazo bat. Audio, adibidez, gune industrialak da. Horregatik, pentsioak orekatuak egon daitezke, gutxi gora behera. Baina Aiaraldeko landa-eremuan nekazari eta autonomo asko dago. Hori dela eta, pentsioak askoz baxuagoak dira eta alargunen pentsioak oso-oso txikiak. Emakume alargunari geratzen zaiona bere senarraren kotizazioaren % 52a da, eta nekazari eta autonomoen kotizazioa oso baxua da. Horregatik, pentsioak asko txikitzen dira. Badago pentsioen osagarri bat. Legeak dio 65 urte baino gehiago dituztenek ezin dutela 634,5 euro baino gutxiago jaso. Gutxieneko soldata

baino baxuagoa da kopuru hori. Pentsiodun batek 400 euroko pentsio bat jasotzen badu gobernuak aipatutako kopurura iristeko diru-kopurua ematen dio. EAEn neurri bat gehiago daukagu, Jaur-laritzak 2008ko uztailean abian jarritakoa. Neurri horrek pentsio guztiak gutxienez gutxieneko soldata iristea ahalbidetzen du, 648,6 eurora.

Zer nolako bilakaera izan da? Denbora asko daramagu pentsioak izoztuta edo urteko %0,25eko igoerarekin. Zapateroren gobernuan egon zen urte bat zeinetan izoztu egin zituzten eta beste bat zeinetan %1eko igoera eman zen. Hortik aurrera %0,25eko igoera eman da urtero. Eta badirudi 2019ra arte igoera ehuneko horretara mugatuko dela, gobernuak

aldatzen ez bada behintzat. Gauzak hala, %15eko gale-rra egongo da 2011tik 2019ra bitartean alargunen eroste-ko ahalmenean, gutxi gora behera, produktuen prezioen igoerarekin egin ditudan kalkuluen arabera. Izugarria da galduko

"Dekretu berriarekin, udalen diru-laguntzak galduko ditugu"

den erosteke ahalmena. **Krisi ekonomikoa dela eta, askotan aipatu da familia askorentzat aiton-amonen pentsioak bilakatu direla sotsengu ekonomiko nagusi. Aiaraldeen ere?**

Aiaraldeen ez dakit, baina Laudion bai ematen dela kasu hori, askotan. Eza-

gutzen dut familia baten kasua. Aita eta ama lan-gabezia geratu dira eta etxea kendu diete. Amona alargunaren etxera bizi-tzera joan behar izan da familia osoa. Zazpi pertso-na guztira, amonaren pentsioarekin soilik. Gertatzen ari den beste fenomeno bat da amek euren alar-gun-pentsioekin seme alaben hipotekak ordaintzen laguntzen ari direla, etxea kendu ez diezaieten.

Egoera horretan, zein da alargunen elkartearen jarduna?

Elkartasun lanetan aritzen gara. Dauden laguntzen berri ematen diegu alargunei, eta egin beharreko tramitazioak egiten ere laguntzen diegu. Aiaral-dean, nekazaritza eremu askotan gertatzen den bezala, alargun askok ez dute jaso ditzaketan laguntzen berri, eta ez dituzte eskaerak egiten.

Alargunen eta umezurtzen pentsioak Pentsioen Sistema Orokorretik kendu nahi dituztela zabaldu da azken hila-beteetan. Zer ekarriko luke horrek?

Galera handia. Dekretu hori ateratzen badute alargunen pentsioak jada ez dira pentsioak izango. Ez dira kotizazioaren araberrakoak izango, aurrekontuen araberrakoak baizik, laguntza sozialak bezala. Horrek esan nahi du pentsionistei dagokien osagarri batzuk jada ez ditugula jasoko. Udalek ere laguntzak ematen dizkiete pentsionistei kasu askotan, eta kasu honetan alargunek ez lituzkete jasoko. Esaten dute jada alargun-pentsioa jasotzen dugunoi ez digutela aldatetik egingo, baina dato-rrerent urtarritetik aurrera datozenek jada ez lukete egoera bera izango. Orain arte iradokizun moduan esan dute, baina publiko egin izanak esan nahi du betetzeko asmoa dutela.

Ardo dastatzea eta Bostibaietaren mendi lasterketaren txanda, Legution

Urria Kulturala egiten dihardute: urriaren 23tik 25era, ipuin kontalaria, Magia Eguna eta umeentzako ikuskizunak izango dira

MIRIAN BITERI

LEGUTIO

Legution Urria Kulturalan murgilduta daude. Aurrekoak bezala, heltzeardagoen asteburua ere ekin-tzaz josita dago. Larunbatean, hilak 17, herrian erabat errotuta dagoen ardo dastatzea izango da. Arabako Errioxako hamarnaka salda ezberdin dastatzeko aukera izango dute iluntzean kultura etxera joaten direnek; urtero moduan, askotariko pin-txoak egongo dira guztion eskura.

Igandean, berriz, kirola izango da nagusi. Bostibaieta kirol elkarteak antolatuta, Jarindo-Albertia mendi lasterketa egingo dute 325 lagunek. Dagoneko itxita dago izena emateko epea; dortsalak igandean bertan jaso ahal izango dira kultura etxean, 9:30etik aurrera. Udaletxetik hasiko da lasterketa, 11:00etan.

Sukaldaritza tailerra

Horrez gain, urriaren 19an eta 21ean, sukaldaritza tailerra egingo dute Erremen-

teri elkartean, 18:00etan. Interesatuak hilaren 19ra arte eman dezakete izena udaletxean; gehienez, 25 lagunendako tokia dago.

Urriaren 23tik 25era bitarterako ere askotariko ekimenak prestatu ditu Laguntza txistulari taldeak. Ostiralean, *Story Time* ingelesezko ipuin kontaketa izango da kultura etxean, 18:30ean. Larunbata bi zatitan egongo da eguna banatuta: goizean, herriko zuhaitzak ezagutzeko irteera egingo dute, 11:00etan.

Arratsaldean, berriz, magiaren txanda izango da. 17:00etan, umeendako magia tailerra izango da; eta hiru ordu laurden beranduago, gazteena hasiko da. 18:45ean, magia ikuskizuna dago, eta 20:00etan, dastatzea, kaleko magia eta dantzaldia izango dira. Aurtengo Urria Kulturalari amaiera emateko, igandean, Trokolo konpainiak *Burutik jota* izeneko antzezlan eskainiko du etxeko txikiendako 18:00etan, kiroldegian.



Pasa den igandean ehun lagunetik gora batu ziren Albertiako Erregeoiaren. | ENEKA ARANTZABAL



Larunbateko bizikleta martxan toki barik geratu ziren batzuk. | TERE B.



Urriko lehen astean, ondo erakusketa izan zen. | ENEKO IBAÑEZ



Gamarrako ostalaritza eskolan aurkeztu zituzten Lautadako gastronomia jardunaldiak, joan den asteartean. | QUINTAS

Onddoak eta ehizakiak dira protagonista jardunaldi gastronomikoetan

Abenduaren 15era arte, menu eta pintxo bereziak dastatzeko aukera izango da Lautadan

ANAKOZ AMENABAR

AGURAIN

Patatak, gazta, onddoak, ehizakiak eta ogia izango dira aurtengo Lautadako Kuadrillako jardunaldi gastronomikoetako protagonistak. Osagai horiek izango dituzte jardunaldietan parte hartuko duten zonaldeko sei jatetxeek prestatuko dituzten platerrek; *Mamitsuak!* goiburur, hilaren 19tik abenduaren 15era arte, menuak eta pintxo bereziak dastatzeko aukera izango dute bisitariek.

"Ogia da aurtengo jardunaldietako berritasunik handiena; produktu xume eta, era berean, bikain

hau berreskuratu nahi izan dugu, zonaldeko beste produktuekin batera", azaldu du Kuadrillako presidente Gustavo Fernandez Villatek. Parte hartuko duten sei jatetxeek –Araiako sagardotegia eta Zubigain jatetxea, Aguraingo Jose Mari eta Zerua jatetxeak, Dulantziko Erausquyn eta Argomazizeko paradorea– 30 euroko plater bana prestatuko dute eta hiru euroko hiru pintxo berezi. Artea eta gastronomia batuta, Gazeo eta Alaitzako elizak bisitatzen dituztenek aukera izango dute hauek dastatzeko Fernandez Villatek azaldu moduan.

Gastronomia jardunaldi hauekin batera, gainera, zonaldeko produktuen salmenta sustatzeko ekinaldia antolatu dutela azaldu du Lautadako

Gastronomika Kluba sortu dute, bertako produktuak sustatzeko

Landa Garapenerako elkarreko presidente Nati Lopez de Munainek. Hala, azarotik aurrera, bertako produktuek saltoki bana izango dute Dulantzi, Agurain eta Araiako azoketan;

ekoizleek bitartekaririk gabe saldu ahal izango dute bertan. Era berean, Kuadrillak Agurainen duen turismo bulegoan ere erosi ahal izango dituzte bisitariek bertako produktuak.

Monumentua

Jardunaldiekin batera, halaber, Lautadako Gastronomika kluba ere osatu berri dute. Turismo enogastronomikoari bultzada emateko helburuarekin sortu zuten Euskadi Gastronomika bere garaian, eta xede horrekin abiatu dute Lautadan ere.

Klubaren parte diren jatetxe eta enpresek produktu enogastronomiko erakargarriak sortzeko konpromisoa hartzen dutela adierazi du Basquetour turismo agentziako zuzendari Arantza Madariagak ekinaldia aurkezteko egindako aurkezpenean: "Bisitarientzat erakargarri izango diren kalitatezko proposamen lehiakorrek mapa enogastronomikoan jarri nahi dugu Lautada".

Arabako egurrezko presa bakarra betirako desagertzeko zorian da

Uribarriko kontzejuak ohartarazi du lehengoratzan ez badute erori egingo dela; 60.000 euroko inbertsioa aurreikusi dute



La Sebe errotako presa arkeologia industrialaren "benetako erlikia" dela nabarmendu du Eusko Jaurlaritzak. | GAUBEATIK ATARIA

ESTITXU UGARTE @estitxuugarte

URIBARRI GAUBEA

La Sebe errotako presa guztiz hondatuko da berehala zaharberritzen ez badute. Hala ohartarazi du Uribarri Gaubeako kontzejuak. Beharrezko neurriak hartzen ez badira, Araban eta EAEn kontserbatzen den zurezko presa bakarra desagertuko da, betiko.

Joan den neguko euriteen ondorioz ur korronteak zulo handi bat egin zuen presaren egituraren eta, Uribarriko kontzejuak adierazi duenez, presaren egoera "oso larria" da eta edozein unetan eror daiteke. 60.000 bat euroko inbertsioa aurreikusi du kontzejuak La Sebeko presa salbatzeko; Udalak eta

kontzejuak ordainduko lukete zati handiena.

Monumentua

XVIII. mendean jada dokumentatuta zegoen zurezko presa Omecillo ibaian, Uribarri Gaubea herriko La Sebe errotatik bostehun bat metrora. Presaren egin-beharra ibaiaren ur-maila igotzea zen, kanalera bideratuz ura errota martxan jartzeko.

Jaurlaritzak, gainera, ondare kulturalen artean monumentu izendatu zuen 2011. urtean. Honako arrazoiak kontuan hartu zituen izendatzerako garaian: "Presa zurez eta harriz egindako egitura berezia da, Arabako lurralde historikoan dagoen bakarra.

2011

URTEA

Jaurlaritzak 2011n izendatu zuen Lan Sebeko presa "monumentu".

Zurezko presak sarri erabili bide ziren garai batean, gelditu diren arrasto ugari eta dokumentazioari erreparatuz gero, baina gerora harrizkoek hartu zuten haien lekua". Horregatik, ez da ohikoa zurezkoak edo tipologia mistoa dutenak aurkitzea.

Izan ere, EAEn gaur egun ezagutu eta kontser-

batzen den bakarra da Uribarrikoa. "Presa mota hau arkeologia industrialaren benetako erlikia dugu, jada desagertu diren antzinako eraketa eta tekniken testigu bakana". Azpimarratzekoak dira, bestalde, presaren erai-kuntza-sistema mistoa, zura eta harria konbinatzen baititu.

2011an presaren kontserbazio egoera balekoa baina delikatu zela aipatu zuten Jaurlaritzako teknikariek, eta haren interes historikoa eta etnografikoa direla eta "zaintzeko beharra" azpimarratu zuen. Jaurlaritza bera, Aldundia eta Gaubeako Udala dira orain presaren egoeraren arduradunak.



Kanpezuko Nordic Walking gunea iazko ekainean inauguratu zuten; goiko irudia aurkezpen egunean hartuta dago. | ALEA

Ipar martxaren booma indartsu sartu da Mendialdeako basoetan

Eskualdeko Kuadrillak debaldeko ikastaroak antolatu ditu azaroaren amaierara arte

MIRIAN BITERI

KANPEZU

Natura da Arabako Mendialdeako altxor garrantzitsuenetarikoa. Bertako Kuadrilla horretaz jabe da eta turismoa erakartzeko asmotan dohainik diren ikastaroak antolatu ditu bigarrenaz Kanpezuko eta Maeztuko Nordic Walking guneetan barrena.

Baina, zer da Nordic Walking? Nordic Walking edo Ipar martxa, hankei ez ezik, besoei eta orokorrean soinaren goiko alde osoari eragiten dion ibiltzeko modua da. Bi makilaren laguntzaz ibiltzean datza, ez edozein makilarekin, kirol honetarako berariaz sortutakoekin baino.

Mendialdeako Sustapen Ekonomikorako teknikari

Ana Maria Beltran de Herediak naturaren garrantzia nabarmendu nahi izan du, eta ikastaro hauen bidez, dagoeneko seinaleztatuta

dauden bideak sustatu nahi dituztela aipatu du. Gaineratu du Kanpezuko guneak bost ibilaldi dituela, eta Maeztukoak, berriz, lau.

Kolore ezberdinetan daude bereiztuta, ibilbidearen zailtasunaren arabera.

Plaza mugatuak

Denera, 10 ikastaro antolatu dituzte; goizez izango dira guztiak, 10:00etan abiatuta. Beltran de Herediak ohartarazi du plaza mugatuak direla; gehienez, 20 lagunek parte hartu ahal izango dute bakoitzean. Interesatuak Mendialdeko Kuadrillara jo dezakete, 945 40 54 24 telefono zenbakira deitu edo info@montañaalavesa.com helbidera idatzi.

Ikastaroak

EGUNA	MAILA	IRTEERA ETA IBILBIDEA
Urriak 17	Hastapena	Santikurutze Kanpezuko kiroldegia. Istora.
Urriak 24	Aurreratua	Santikurutze Kanpezuko kiroldegia. Ega.
Urriak 25	Aurreratua	Santikurutze Kanpezuko kiroldegia. Codes mendilerroa.
Urriak 31	Hastapena	Santikurutze Kanpezuko kiroldegia. Istora.
Azaroak 7	Aurreratua	Maeztuko udaletxea. Dehesa.
Azaroak 8	Hastapena	Maeztuko udaletxea. Mendigana.
Azaroak 15	Aurreratua	Santikurutze Kanpezuko kiroldegia. Ega
Azaroak 21	Aurreratua	Maeztuko udaletxea. Dehesa.
Azaroak 28	Hastapena	Maeztuko udaletxea. Mendigana.
Azaroak 29	Aurreratua	Santikurutze Kanpezuko kiroldegia. Codes mendilerroa.

EKAITZ LOTINA ETA SAIOA URIZAR

ARGANTZON IKASTOLAKO ZUZENDARIAK Urriaren 27an 12 urte beteko dira Argantzón ikastolako ateak zabaldu zirela. Ikastetxearen ibilbideaz eta euskararen egoeraz berba egin dute ikastolako zuzendariak. **MIRIAN BITERI** ARGANTZUN

"Ikastolak ez du nahikoa babes"

Nola gogoratzen duzue ikastolaren hasiera? Ilusio handiaren. Ordura arte nahiko ezezaguna zitzaigun Trebiñu. Dena zegoen egiteke, proiektuari forma eman, jendeari ezagutarazi eta familiak bilatu, azpiegiturak prestatu, ardurak definitu... Udala eta Ikastolen Elkartaren babesa geneukan baina lan gehien-gehiena gure esku egon zen. Lan eta ardura handia geneukala bagenekien baina pixkaka forma ematen joan gintzaizkion.

Zenbat ume joan ziren lehen egun horretan?

Urtebete eta bi urteko 11 ikasle. Aurrerago beste hiru gehitu zitzaizkigun. Bi irakasle ginen orduan, eta 60 metro koadroko ikastola genuen. Azken urteetan, 0 eta 6 urte arteko 40 eta 50 ikasle artean dabilta eta bost irakasle eta hezitzailek osatzen dugu irakaslegoa. Bestalde, badira 8 urte bigarren eraikina dugula; haurrak lau zapabost gelatan banatzeko aukera ematen du horrek, bai eta eguraldi eskasa dagoenean, jolasleku estalia izatekoa ere.

Nongoak dira ikasleak?

Argantzungo ikasle dezentetugua baina badira ere Trebiñuko beste herrietakoak ere: Añastro, San Esteban, Burgeta... eta baita Araba "ofizialeko" herrietatik datozenak ere, Tuiutik, adibidez. Azkenean urteetan Gasteiztik ere etorri zaizkigu; Mariturri eta Zabalgana auzoetatik.



Zuzendariak, ikastolako berdegunean. | ALEA

Asko aldatu da garai hartako ikastola eta gaur egungoa?

Ikastolak betiko filosofia mantentzen du, baina handitu den neurrian badira zenbait gauza aldatu direnak ere. Gaur egun erreferentzia gara inguruan; jendeak badaki Argantzunen ikastola dagoela. Bestalde, proiektua definituago dago, hezkuntza mailan, adibidez. **Euskararen bueltan, zer nolako eragina izan du ikastolak inguruan?**

Orain dela bi urte Trebiñuko euskaldunen kopurua bikoiztu egin dela jakin zen Aldundiak egindako inkesta baten bitartez. Gure

lehenbiziko belaunaldiko ikasleek 14 urte dituzte jadanik eta euskara hutsean ikasteak hizkuntzaren eza gutzan eragin zuzena izan du. Bestalde, ikastolaren inguruan euskararekin loturiko "komunitate" modukoa sortzen joan da, eta ikas-

tolatik atera ondoren ere, euskararen alorra lantzen jarraitzeko interesa agertu duten familiak agertzen joan dira. Hor dago, esaterako, Txingoka elkarteak. **Zeintzuk dira epe laburrera begirako erronkak?** Ikastola honek jaio zen egunetik duen arazoa konpontzea beharrezkoa dugu.

Arazo ekonomiko larria dugu. Nekatu xamar gaude kontu honekin eta irtenbide azkarra aurkitzea nahi genuke. Urtero-urtero kontu berarekin egon behar ez izateko, irakasleek hila-betero beste edozein lekutan bezala soldatak jasotzeko eta ezjakintasun-zalantza-kezka girotik behin betiko aldentzeko premia handia dugu.

Horrek esan nahi du ez duzuela babes nahikorik, ezta?

Ikastolak ez du nahikoa babes erakundeen aldetik. Paperaren gainean edo adierazpenetan mundu guztia dago ikastolaren alde baina ateak ireki genituenetik 12 urte pasa direnean, egoera ekonomikoarekin kolokan gabiltza beti. Egia da beti lagundu digutela eta egun ere, baina argi dago ez dela nahikoa. Horren bueltan, esan beharra dago Gaztela-Leondik ez dugula ezer espero; euskaldunak gara eta Euskal Herriari begira gaude, hortik etorriko zaigu konponbidea ikastola honetako. Bestalde, azpimarratzekoa da jendearen babesa hor dagoela. Orokorrean jendea pozik dago ikastola dagoelako. Horrelako errealitate batek bizia ematen dio inguruari eta zerbitzu garrantzitsua familiei, euskara hutsean gainera.

Epe luzerako erronkarik al duzue?

Bai. Familien eskaera historiko bati erantzuna eman nahiko genioke: hain justu, baldintza egokietan Lehen Hezkuntza murgiltzea.



Ezkerretik, Jokin Villanueva, Joseba Fernandez, Pedro Elozegi, Pilar Garcia Salazar eta Angel Cornes. | JUANTXU MARTINEZ

Joseba Fernandez izendatu dute Kuadrillako presidente

Zieko Baiko Angel Cornes aukeratu zuten presidenteorde pasa den astean egindako bilkuran

MIRIAN BITERI

GUARDIA

Arabako kuadrilla guztien artean osatzen azkena izan bada ere, dagoeneko presidente berria du Arabako

Errioxako kuadrillak. Urriaren 7an egindako ekitaldian, Kripango alkatetik Joseba Fernandez jeltzalea aukeratu zuten presidente.

Eskualdeko udalak ordezkatzen dituzten 27 batzarkide daude Arabako Batzar Nagusietan; eta horiek ziren, hain justu ere, esandako ekitaldian

deituta zeudenak. Batek baino ez zuen huts egin. Aurreikusi bezala, EAJk proposatutako hautagai Joseba Fernandez nagusitu zen, 12 botoarekin.

Zazpi boto zuriz

Kuadrillako presidente gisa, berriz, Zieko Baiko elkarteko Angel Cornesek jardungo du datozen lau urteotan. Denera, zazpi boto lortu zituen azken honek. Gainerako beste zazpi ordezkariek zuriz bozkatu zuten.

KULTURA

Labrazan ere antzezturiko bisitak antolatu dituzte

Urriko igande eguerdietan dira; herriko harresiek gordetzen duten historia ezagutu ahal izango dute bisitariek

M.B.

LABRAZA

Azken urteotan bezala, Labrazan ere antzezturiko bisitaldi dibertigarriez gozatzeko aukera dago azken asteotan. Hain justu ere, hilaren 11an, 18an eta 25ean, eguerdian, egingo diren antzezlanetan izena eman daiteke.

Interesatuak Guardia-ko turismo bulegoarekin jarri behar dira harremanetan honako telefono

zenbakian: 945 60 08 45. Plaza kopurua mugatua da, eta hortaz, garaiz ibiltzeko gomendioa egin dute. Sarreraren prezioari dagokionez, helduek lau euro ordaindu behar dituzte; zortzi urtetik beherako neska-mutilentzat, berriz, debalde da.

Modu atseginean

Esan bezala, 12:00etan hasiko dira bisitak, San Migel elizan. Sapo Producciones



Aktoreak lanean, Labrazan. | ALEA

konpainiaren eskutik herriko historia eta txoko esanguratsuenak modu atseginean eta umoretsuan ezagutuko dituzte bisitariek; azken horiek ez dira ikusleak bakarrik izango, antzezlanean parte har-

tzeko gonbita luzatu dieten eta aktoreek.

Labraza Arabako Errioxako herri ederrenetakoa da. Horren bultzatze, sariak jaso ditu; esaterako, 2008. urtean *Urteko Hiri Harresiduna* saria jaso zuen.



Kike Amonarriz aurkezlea izango da ikasturte honetako lehenengo gonbidatua; irudian, Gasteizen emandako hitzaldi batean. | S. FDZ. DE ARANGUIZ

Publikoa kazetari

Elkarriketatzaile izatetik elkarriketatu izatera pasako da Kike Amonarriz telebista-aurkezlea ostiralean; entzuleen jakin-minak protagonista, SolasALEAN saioan izango da tolosarra, Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean. **ITSASO ESTARRONA** GASTEIZ

Bizipenen bihurguneak; lan-bidearen zoko-mokoak; memoriaren zirrikituak; sinismenen kantoiak: elkarriketatutaren ertz guztiak ezagutzeko abiatuko da berriz ere SolasALEAN izeneko elkarriketeta zikloa, Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxeak antolatuta eta ARABAKO ALEA aldizkariak eta Hirinet atariak gidatuta. Publikoak egindako galderei erantzungo diete gonbidatuek hurbileko giroan, haiek aukeratutako meriendaz lagunduta eta euren ibilbideetan esanguratsua izan den objektu bat eta abesti bat hitzordura ekarrita.

Aurreko ikasturtean Berri Txarrak taldeko Gorka Urbizu musika-

riarekin eta Garbiñe Biurrun euskal epailearekin egindako solasaldien arrakastaren ondoren (Hirinet-en ikus daitezke bideoak), proposamen indartsuekin itzuli da egitaraua. Kike Amonarriz telebista aurkezle tolosarra izango da oholtzara igozten lehena, urriaren 16an, ostirala, 19:00etan Montehermoso jauregiko Betolaza aretoan.

Josebe Iturrioz ekintzaile transfeminista ordiziarrak hartuko du lekukoa azaroan, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako egunaren atarian, eta umeena izango da urteko azken txanda, abenduan, haien galderak erantzuteko prest Olentzero eta Mari Domingi menditik jaitsiko baitira. Sare sozialen

bidez ere egin daitezke galderak, #solasALEAN traola erabilia.

SolasALEAN saioak

URRIA-ABENDUA

Urriaren 16an, ostirala (19:00):

Kike Amonarriz soziolinguista, filologo, umorista eta aurkezlea.

Azaroaren 17an, asteartea (18:30):

Josebe Iturrioz ekintzaile transfeminista, filosofian lizentziaduna.

Abenduaren 18an, ostirala (18:30):

Olentzero eta Mari Domingi, bereziki haurrei zuzendua.



**Errefuxiatuak
txalupa batean,
Europara bidean.**

MASSIMO SESTINI

Noraezaren lekuko

Munduaren deribak eta bat-bateko argilunak 160 argazkitan ekarriko ditu World Press Photo erakusketak Gasteizera, larunbat honetatik azaroaren 15era bitartean Montehermoso kulturunean ur biltegian. **I. ESTARRONA** GASTEIZ

Mundua errebelatzea, zentzu guztietan: helburu hori du munduko fotokazetaritza ekimen nagusiak, World Press Photo erakusketak. Nazioarteko gizarteek hartu dituzten bideak eta saihezbideak erakusteko, saritutako 160 argazki ekarriko ditu aurten Gasteizko Montehermoso jauregiko ur biltegia, ostiral honetan hasita (urriaren 16a), hilabete oso batez, azaroaren 15era arte.

Guztira, 2015eko edizioan ia 5.700 argazkilarik hartu dute parte, 131 herrialdeetakoak. Horien artean, 25 nazionalitate ezberdineko 53 sortzailek lortu dute lekua aurten go erakusketan. Sari nagusia Danimarkako Mads Nissen argazkilariak lortu du oraingoan, *Jon eta Alex* irudiarekin. Bikote homosexual

bat erakusten du eszena intimo batean, homofobiaren arazoa hedatua dagoen San Petersburgo hirian.

Bor-bor dauden bestelako gai askok ere tokia dute aurtengo albumean, tartean Ukrainako gatazka, Siriako gerra, ebolaren krisia, palestinarren erresistentzia eta Nigerian bahitutako 300 nesken

familien drama, bai eta natura eta kirola mintzagai duten kontakizunak ere, esaterako landare haragi-jaleen unibertsoa edo munduko futbol txapelketako kopa.

Asteartetik igandera

Mende erdia darama World Press Photo fundazioak mundu osoko argazki-kazetaritzaren ispilu eta hauspo izaten, 1955. urtean prentsako argazkien lehenengo erakusketak xume bat antolatu zuenetik. Azken edizioan hamar mila bisi-tari inguru erakarri ondoren, hamahirugarren urtez egongo dira ikusgai Gasteizen munduko argazki-kazetari onenen lanak, asteartetik igandera 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara, sarre-ra doan. Igandeetan itxita egongo da erakusketa.



Samburuak, Kenia. | AMI VITALE

Biolentzia Turkian.

Turkiako gobernuaren aurkako manifestazio batean, ogia erostera zihoan 15 urteko gazte bat hil zuen poliziaren gas bote batek. Haren omenezko hileta prozesioan, polizia eta herritarren arteko istiluak sortu ziren, eta irudiko gaztea zauritu zuten agenteek.



BULENT KILIC



YONGZHI CHU

Animaliak biktima. Bere entrenatzaileak egin diezaiokeenagatik ikaratuta, uzkuritu egiten da irudiko tximinoa, Txinako zirko batean. Ikuskizunetan animaliak erabiltzea eta zoologikoetan abusuak egitea debekatu berri du gobernu txinarrak, baina oraindik ere tratatu txar kasuak ematen dira.



BAO TAILIANG

Munduko kopak itsututa.

Argentina eta Alemaniaren arteko finalean, europarrek irabazi zuten iaz munduko futbol txapelketako kopa Brasilen. Lionel Messi argentinarra, munduko futbolari onenetako bat, garaikurrean begiak iltzatuta geratu zen Rio de Janeiron ospatutako bukaera jaian.



ASA SJOSTROM

Umezurtz. Europako herrialderik pobreena da Moldavia. Irudian, Igor umezurtza bere urtebetetzean, lagun bati xuxurlaka, txokolatea eskutan.

Sahararekin hitzordua

Espainiaren oniritziarekin Marokok Sahara okupatu zuenetik 40 urte igaro direnean, azken lau hamarkadetan Saharar herriak bizi izan duen bilakaera eta gaur egungo erronkak ezagutzeko aukera izango da Gasteizko Ignacio Aldecoa kulturunean. **I. E. GASTEIZ**

Marokoko berrogei mila soldadu eta hirurehun mila zibil baino gehiagok bat egin zuten Ibilaldi Berdea izeneko martxan duela orain berrogei urte, ordura arte Espainiaren kolonia izandako Mendebaldeko Sahara okupatzeko, Hassan Bigarrena errege marokoarraren gidaritzapean eta orduko erregimen espainiarren oniritziarekin. Urteurrenaren harira, jardunaldia antolatu dute Gasteizen Iratzar fundazioak (Sortu), Alkartasunak (Eusko Alkartasuna), Ezkerraberririk (Aralar) eta Alternatiba alderdiak, "Ibilaldi berdeak 40 urte, 40 urteko elkartasuna Sahararekin" izenburupean. Ostiral honetan izango da

Jardunaldia

URRIAREN 16AN, OSTIRALA

16:00 Mohamed Sidati Fronte Polisarioaren Europako ordezkariaren hitzaldia: 'El Sahara Occidental a los 40 años de la Marcha Verde'.

17:00 Mahai-ingurua, Carlos Beristain eta Hassana Aalia ekintzaileekin: 'Los derechos humanos en el Sahara Occidental'.

18:15 Mahai-ingurua, Núria Salamé (Associacions Catalanes Amigues del Poble Sahrauí), Jesus Garai (SEAD) eta Nekane Perezekin (Nafarroako parlamentari ohia).

hitzordua (urriak 16), Ignacio Aldecoa kultur etxean.



Bederatzi gonbidatu eta gidari

Arratsaldeko 16:00etatik 20:00ak arte luzatuko den saioan, bederatzik ekintzailek, politikarik eta kazetarik hartuko dute parte, tartean Mohamed Sidati Fronte Polisarioaren Europako ordezkariak, Carlos Beristain giza eskubideen aldeko ekintzaileak, Hassana Aalia gazte ekintzaile sahararrak, Nuria Salamé Kataluniako sahararren lagunen elkarteko kideak eta Jesus Garai Saharako Errepublikar Arabiar Demokratikoaren lagunen elkarteko kideak (SEAD). Irekia eta dohainik izango da saioa.

UMEAK UME

HIZKI SALDA

Bilatu objektuen izenak! Ikasturtean bete-beteta sartuta gaude. Baietz asmatu eskolako objektu hauen izenak.



SOLUZIOA

Zehaztu zure izen-abizenak eta zer zozketatan parte hartu nahi duzun:



695 63 28 62



erredakzioa@alea.eus



ZOZKETAK

Harpidedunentzat eskaintzak

Azken zozketetako irabazleak:

'Salto' antzezlanak: Nerea Txurruka Garate (Ondategi).

Zainzuri sorta: Oihana Arberas Egiluz (Goepgi).



Parralen bazkaria

ALEAK **bi lagunentzat** menu begetarianoa zozketatuko du Gasteizko Alde Zaharreko **Parral** tabernan, astean zehar bazkaltzeko. Eman izena urriaren 26a baino lehen. Hilaren 30ean jakinaraziko dugu irabazlea.

VITORIA GASTEIZ

HITZ adina mintzo

oihanedereuskararenetxea.eus

Diario **radio vitoria**

OHANEDEREUSKAREN ETXEA
KANTUZAZA SAILA ANTZAKIA

Hizkuntza gutxituak ezarutzero zikloa

Cymraeg (galesera): abenduak 15-16

Galiziera: urriak 21-22

Hebrear: urriak 15-16

Galiziera gertutik

URRIAK 21, ASTEAZKENA - 19:00
Isaac Xubin (A Coruña, 1978) filologo, irakasle eta idazlea.
Txerra Rodríguez (Denia, 1977) soziolinguista, hizkuntza alorak eta Galizierak ikertokiak.

URRIAK 22, OSTEAGUNA - 19:00
Sés abeslari galiziararen kontzertua

Norbaiti zure mezua
helarazi nahi diozu?
erredakzioa@alea.eus
625 231 603



GASTEIZ
Iraitz Etxenike Urrutia
"Zorionak Iraitz
laztantxu! Hiru urte!
Gure etxeko udazken
loreari muxuak familia
eta lagunuen partez".



GASTEIZ
Montse Carrillo Silgado
"Zorionak sorgina! Laster berriro ibiliko zara sasi guztien
gainetik eta hodei guztien azpitik".



GASTEIZ
Pili Bengoa
"Bizitza txalupa bat bada, zurea itsasontzia! Garagardo batekin
iritsiko gara porturen batera... Musu handi bat lagunuen partez".



ALEA aldizkaria ostiralero zure postontzian jaso
nahi duzu? Egin zaitetz harpidedun, eta 50
euroren truke, urtean 44 ale jasoko dituzu.

www.alea.eus
945 71 60 09
harpidetza@alea.eus

HITZ GEZIDUNA

	Troskiren aldekoa ▼	Utzi ▼	Bezainbeste, adina ▼
	Eramaile	Baratzea	Bezainbat
	▶	▼	▼
	*		
	Irlanda		
Gaztelako hiria ▼	Solairua ▼		
Ostiral	Detekta-gailu		
▶	▼		Naizen hau ▶
			Nago
Emakume izena ▶			▼
Aguilar ..., Nafarroan			Nitrogenoa-ren ikurra ▶
▶			Euskal sindikatua
		USA, euskaraz	▼
		Interjekzioa	
Jainko egiptoarra ▶		Teilatuko pieza ▶	▼
Daramatzat		Bokal biribila	
▶	▼		

* Lantarongo dorrea

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNA

T	V	Z	I	V	O	R	V	D
V	L	I	T	E	I	V	R	A
B	E	S	S	E	O	D	E	K
N	A	R	I	N	A	R	I	M
I	N	K	I	V	A	R	I	B
V	A	I	E	S	T	A	I	Z
Z	V	O	R	G	A			
E	R	O	A	L	E			
B	L	T						

SUDOKUA

7	9	6	1	2	3	5	8	4
4	2	7	9	8	5	3	4	1
3	2	7	6	4	1	5	8	9
3	5	6	1	9	2	2	8	7
5	3	9	7	1	8	4	7	6
4	7	8	6	5	3	2	9	1
5	8	3	4	1	6	7	2	9
6	2	9	5	7	8	4	1	3
7	1	4	2	3	9	5	8	6

GOITIBEHERA

A	I	G	R	V	I	I
V	A	I	V	A	I	I
I	V	A	I	V	A	I
V	A	I	V	A	I	I
V	A	I	V	A	I	I
V	A	I	V	A	I	I
V	A	I	V	A	I	I
V	A	I	V	A	I	I
V	A	I	V	A	I	I
V	A	I	V	A	I	I

SUDOKUA

					9	5		
				7		4	1	
	8	3			6			9
						2	9	1
		1				6		
3	5	6						
9			7			1	5	
	6	7		8				
		5	3					

Nola jokatu? 9x9-ko lauki honetako gelaxka hutsak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiekin; zenbaki bakar bat ere ez da bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, eta ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

GOITIBEHERA

1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

Nola jokatu? Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu behar duzun hitzak.

1. Gasteizko kontzejua.
2. Eskea.
3. Diferentzia.
4. Haraneko kontzejua.
5. Edo.
6. Pozik, kontent.
7. Itxura ederreko gazte.
8. Bizkaieraz, fruitua.
9. Lurraren satelitea.



Solasalean, Kike Amonarrizekin

Gasteiz. Ostirala 16, 19:00etan, Oihanederren.

URRIAK

16

URRIAK

22

EUSKARAREN AGENDA

BERTSOLARITZA

Bertso saioa

Aramaio. Ostirala 16, 19:30ean, Sastiña aretoan. Unai Gaztelumendi eta Julio Sotorekin.

HAURRAK

'**Magia parrastan**', **Imanol Ituñorekin**

Laudio. Larunbata 17, 17:30ean, La Milagrosa ikastetxean. Sorgin Zapatuak egitasmoaren barruan. 5 urtetik gorakoentzat.

Jolas hezitzaileak

Gasteiz. Larunbata 17, 12:00etatik 13:00etara, Elkar megadendan. 4-8 urte bitartean.

**Irakurketa kluba,
familian**

'**Kreditua**', **Tanttaka taldearekin**

Gasteiz. Asteazkena 21, 20:30ean, Principal antzokian. Joseba Apaolaza eta Zuhaitz Gurrutxagarekin.



Gasteiz. Astelehena 19, 18:00etan, Ibaiondo gizarte etxean. Iñaki Carretero ipuin kontalariaarekin.

'**Amonaren sutondoko ipuinak**' **txotxongiloak**

Gasteiz. Asteartea 20, 18:00etan, Salburuko gizarte etxean. 4-9 urte bitartean.

'**Mamuak**' **Zurumurru antzerki taldearekin**

Gasteiz. Asteazkena 21, 18:00etan, Ariznabarra gizarte etxean.

IKUS ENTZUN

Gazte Zinemaldia

Ozeta. Hilaren 16tik 18ra gidoigintza ikastaroa. Argibideak 945-06 32 45 telefonoan.

'**Kikilisalda**' **euskal mitologiari buruzko saioa**

Laudio. Urriaren 16an, 17:30ean, Lamuza eskolan. Musika eta kondaira uztartuko dituen kondaira.

HITZALDIA

Hitz Adina Mintzo jardunaldiak

Gasteiz. Asteazkena 21,



ALEA

Oskorri

Gasteiz. Larunbata 17, 20:00etan, Mendizorrotza kiroldagian. Ia 45 urteko

musika ibilbideari amaiera emango dio aurtien Oskorri taldeak eta azkeneko biran eskainiko dituen kontzertuen

artean geldialdia egingo du, besteak beste, Gasteizen. Aitzina Folk jaialdiaren barruan eskainiko dute kontzertua.

Galizierari buruzko hitzaldia. Isaac Xubin irakasle eta idazlea eta Txerra Rodriguez soziolinguista eta hizkuntza aholkularia. Hizkuntza gutxituen inguruko jardunaldia.

MUSIKA

Marcus Bonfanti eta

BESTE HITZORDU BATZUK

John Nemeth

Gasteiz. Ostirala 16, 22:00etan, Hell Dorado aretoan.

Purpendicular eta Golden Grahams

Gasteiz. Ostirala 16, 20:00etan, Jimmy Jazz aretoan.

Manuel Iradier abesbatza

Aramaio. Larunbata 17, 19:30ean, kultur etxean.

Agnostic Front, Old Firm Casuals eta Coldsides

Gasteiz. Larunbata 17, 20:30ean, Jimmy Jazz aretoan.

Toby Connor

Gasteiz. Asteartea 20, 20:30ean, Parral tabernan.

El Cabrero

Gasteiz. Osteguna 22, 21:00etan, Jimmy Jazz aretoan.

ANTZERKIA

'Medea'

Gasteiz. Ostirala 16, 20:30ean, Principal antzokian. Aitana Sanchez Gijon eta Andres Lima aktoreekin.

'Mariposas de París'

Gasteiz. Ostirala 16, 19:00etan, Baratzta aretoan. Cafe de las Artes taldearekin.

'Ay Carmela'

Amurrio. Larunbata 17, 20:00etan, Amurrio antzokian izango da.

'Antígona'

Gasteiz. Larunbata 17, 20:30ean, Principal antzokian. Carmen Machi eta Manuela Paso aktoreekin.

'Dantzan Bilaka'

Gasteiz. Igandea 18, 19:00etan, Baratzta aretoan. Dantza emanaldia.

'El purgatorio'

Gasteiz. Asteazkena 21 eta osteguna 22, 19:00etan eta 21:00etan, Anden tabernan. Carmen San Estebanekin.

'La piedra oscura'

Gasteiz. Osteguna 22, 20:30ean, Hegoalde gizarte etxean. Daniel Grao eta Nacho Sanchez aktoreekin.

HITZALDIA

'Huertos urbanos', Pedro Ferrerorekin

Gasteiz. Astelehena 19, 19:30ean, Abetxuko gizarte etxean.

'La luna: un satélite excepcional', Alberto Ancinekin

Gasteiz. Osteguna 22, 19:30ean, Salburuko Ataria gunean. Aurretik izena eman behar da Salburuko hezeguneko naturaren interpretazio zentroan.

ERAKUSKETA

'Biodiskografiak', Alaitz Alberdiren ilustrazioak

Gasteiz. Azaroaren 21era arte izango da, Zuloa liburu dendan. Iban Zalduaren *Biodiskografiak* ipuin liburua gaztelaniazko edizioa ilustratzeko lana egin du Alaitz Alberdik.

BESTELAKOAK

Gaubeako patataren azoka

Boveda. Igandea 18, egun guztian zehar. Gastronomía txokoa, eskulangileak, herri kirolak eta beste hainbat jarduerak.



ZUREKIN HITZ EGIN NAHI DUT

mintzalaguna



izen ematea urriaren 1etik 21era

Informazioa:

Gasteizko Mintzalaguna (GEU elkarte)

Rogelia de Alvaro Elkarteen Etxea, C eraikina 1.1. bulegoa, Panama kalea z/g

945 22 21 53 • 688 81 91 18 (Naroa Cuesta) • 648 90 75 65 (Zurine Etxeberria) • 640 57 49 96 (Zurine Gil)

www.gasteizkomintzalaguna.com

Koordinatzailea



Sustatzaileak



Babesleak



Laguntzaileak



Bideoa ikusteko

